

Arratsalde pasa parkean. Piezen letrak

Kantak

Aldapeko sagarraren

Aldapeko sagarraren

adarraren puntan,

puntaren puntan,

txoria zegoen kantari.

Txiruliruli, txiruliruli!

Nork dantzatuko ote du soinutxo hori?

Txiruliruli, txiruliruli!

Nork dantzatuko ote du soinutxo hori?

Bagarela, ez garela

mutil eta neska,

nonahitikan biltzen dira

egitera besta,

mila sorgin,

dantzari Zugarramurdin.

Txiruliruli, txiruliruli!

Nork dantzatuko ote du soinutxo hori?

Txiruliruli, txiruliruli!

Nork dantzatuko ote du soinutxo hori?

Jolasak

Eri kikila

Eri kikila, haren mutila, lanperero, lanpetit eta zorri hiltzailea!

Tilin-talan

Tilin-talan!

Nor hil da?

Peru zapataria.

Zer egin du?

Bekatu!

Erregeren zakurra urkatu!

Behin bazen jaun bat (Deus ere erran gabe aguantatzeko)

Behin ba omen zen jaun bat,

bizar-bizar jaun bat,

joan omen zen komentuko baratzerat,

jan omen zuen aza berde,

egin omen zuen kaka berde;

hura lehenbiziko hitza ateratzen duenarentzat!

Zotz egiteko

Anda randa

Anda, randa, zubi, llanda, lera, txiko, zapatiko, lera-lera, neme, txapi-txapi, txanda, pitxerrean xilarra, nire bihotzeko ainarra, ttuntturun bilo, xi-lo-ko!

Ipuina

Patxiku eta ilargia

Bazen behin Patxiku izeneko mutil bat. Egun batean, bere etxean sua egiteko egurra falta zutenez, bere amak erran zion:

- Patxiku! Patxiku! Zoaz eta ekarri zama bat otatxa.

Patxiku joan zen eta bere zama bilduta zuela, jolasten hasi zen. Baina ilundu zitzaion eta ez zekien nola bueltatu etxera. Orduan oihuka hasi zen:

- Argi ezak, ilargia! Argi ezak!

Baina ilargiak ez zion kasurik egiten. Eta fuertego oihukatu zion ilargiari:

- Argi ezak, ilargia! Argi ezak!

Azkenean erran zion:

- Kaka ilargia!

Eta ilargiak Patxiku hartu eta, bere otatxa zama eta guzti, eraman zuen. Ordutik, hantxe dago eta ilargi betea dagoenean, ilargiari begiratzeko badiozu, ikusiko duzu han dagoela Patxiku.

Formula

Eguzkia agurtzeko

Eguzki amandrea badoa bere amarengana. Bihar etorriko da, eguraldi ona bada.

Asmakizuna

- Buru zabala, barrena goxoa, jateko kentzen zaio buztan osoa. Zer da? (pikua)

Esamoldeak

- Ahoa ur bihurtu

Erran zaharrak

- Azeria, bildotsetara (= la cabra tira al monte)
- Arrats gorri, bihar eguraldi

